

Karkara

karkara.eus

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2016eko martxoaren 18a · 371. zenbakia, 26. urtea



Tabakalera, zergatik eta zertarako?

Tabakalerako komunikazio eta garapen zuzendaria da Mainer Beldarrain. Proiektuaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

8

Elkarrizketa
Xabier Etxeberria

12

Erreportajea
ELE proiektua

28

Adarretatik helduta
Imanol Manterola

34

Udalaren Txokoa
Aurrekontuak

Izarra Elektrogailuak

BETI ESKAINTZAK !!

BOSCH
99 €

7Kg
1200r/min
A+++
279 €
PANASONIC

200gr
2800W
69 €
BOSCH

750W
+ txikitzekoa
55 €
BOSCH

AC
2200W
49 €
BOSCH

TIEN 21 Eusko gudari, 44 • 943 833 881 **TIEN 21**

arkaitz taberna
rio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

GURE BEGIZ IKUSTEKO

Sintonizatu! Telebistan, Euskaltel Digitalean edo webgune berrian: www.hamaika.eus

Hamaika
telebista

Kostera

Astelehenetik larunbatera 08.30-13.30 Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

Arraiak
zure arrandegia

EUSKO GUDARI, 4

ARRAINDEGIA

371

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.eus

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Lore Berasaluze,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako

kolaboratzaileak

Aitor Arregi,
Beñat Gaiton,
Iñaki Iturain,
Rosi Lazkano
Garbiñe Manterolla,
Imanol Manterola,
Jokin Salsamendi,
Jokin Zumeta

Diseinua

Saioa Perona

Banatzailleak

Rodolfo Jimenez,
Leire Bravo (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua 55-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

Atzeko azaleko argazkia

Iban Egiguren

KARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzuz-
kizunik. KARKARAN argitaratuta-
koa berreman daiteke, osorik
edo zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Rosi Lazkano gaztetan. R. LAZKANO

HASI BERTSOTAN

ROSILAZKANO (DOINUA: GOGORATUKO ZARA HERRIKO JAIETAN)

Gaia: Zikloa, II.

Berto eguna, Donostia. 2016/01/30

5

Nerabetzan ez katxi
eta ez zurito
nire beldur guztiak
izerditan ito
hanka punttetan dantzan
bi ordu ta piko
abiapuntu txarra
ez zen, nirekiko
hanka punttetan dantzan
bi ordu ta piko
faborez baten hasi
ta lotu betiko.

7

Orain dirudigula
katu eta sagu
zulotxoan sartzeko
ez nabil hain malgu
oilo ipurdin jartzea
hori ez dut galdu
desio berriren bat
beti zait azaldu.
Oilo ipurdin jartzea
hori ez dut galdu
eta grano eta akne
itsusitik salbu.

6

Etixerako bidean
argitik ezkutu
lehen muxua, bueno..
ezpainak ikutu
barru(a)n dena algaraz
kanpo(a)n dena mutu
segundoa bihurtu
zitzaidan minutu.
Barru(a)n dena algaraz
kanpo(a)n dena mutu
bekatua zen baina
ez nintzen damutu.

8

Haiztarako inor
izango ez garenez
holako aukerei
ez diet orain ez
seguro segiko dut
tabarra emanez
gustatzen zaidan hura
gustura eginez
seguro segiko dut
tabarra emanez
lehen hanka punttetan
eta orain oinez.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Eskerrik asko Feministorio ahaztezinagatik

Xaltxerak berriz elkartzen hasi garenetik martxa polita hartu dugu. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunagatik borrokatu eta emakumeon ahalduntzerako egin eta egingo dugu lan.

Lehen aldiz, *Feministorioa* izan genuen aurreko astean. Saregileekin egon ginen tertulian, emakumeen afari jendetsua izan genuen, kontzentrazioa ere jendetsua izan zen, zine foruma egin genuen eta giro polita sortu genuen pintxo pote feministan.

Gutun honekin eskerrak eman nahi dizkiogu *Feministorioan* parte hartu duten guztiei. Saregileei beren istorioak kontatzeagatik, bertsolari eta trikitilarietara pintxo potea girotzeagatik eta afarira etorri ziren emakumeei hain eroso sentitzeagatik.

Hurrengo urtean berriz! ■ **Orioko Xaltxerak**

Hitzaldiak eta ekintzak Toki Alai elkartearen

Orioko Toki Alai elkarteak herritar guztientzako hainbat ekintza antolatuko ditu 2016an.

Batetik, hitzaldi irekiak pil-pilean dauden gaiak azaltzeko, adituak etorriko dira urtean zehar Orioko kultur-etxera. Hitzaldiek egungo gaiak jorratuko dituzte, hala nola, Europara datozen errefuxiatuen krisia, edo eta Euskadiren eta Espainiaren arteko Ekonomia Ituna. Gazteei eta gurasoei zuzendurik, berriz, atzerrian ikasketak egiteko programak eta laguntzak. Gai horiek eta beste batzuk lantzeko punta-puntako adituak ekarriko dira, hizkuntza lau batean, denok ulertzeko

Gutunetako argibideak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke karkara@karkara.com helbidera edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenezarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARA esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

modukoan, gaiaren gakoak emango dituztenak. Galdera-erantzun saioa ere egongo da, eta zenbaitetan adituen arteko eztabaida moduan aurkeztuko da gaia.

Bestetik, Toki Alai elkartearen bertan, aisialdirako ekintzak antolatuko dira. Mus txapelketa, sukaldaritza ikastaroak, afari tematikoak –alemana, sagardotegikoa...– eta abar.

Oraindik ere labean dauden programak osatzeko, herritarrei deialdia luzatzen diegu jorratu nahiko lituzketen gaiak eta ekintzak adierazteko, ahal den neurrian herritar gehienaren intereseko izan daitezkeen gai horiek ere eskaintzeko.

Iradokizunak eta proposamenak elkarteari helarazteko bideak, honako hauek dira:

- Emaila: oriokeajpvn@gmail.com
- WhatsApp: 605 72 00 44

Orioko EAJren Twitter eta Facebooken argitaratuko diren inkesta digitalak. Mila esker aldeztu aurretik zuen parte-hartzeagatik.

■ **Orioko EAJ/PNV**

Orioko Udaletxea: 2016ko Aurrekontuak

Orain taldeak Orioko Udaletxerako EAJk aurkeztutako 2016ko aurrekontuei baiezkoko emateko ondoko baldintzak jarri ditu:

Politikoen soldata %15 jaistea. Gehiegikeri bat da bi liberatuek alkatearen maila bera izatea. Bai PSE-EE bai Bildu ados daude puntu honekin. Gipuzkoako gure antzeko hamaika herrien artean Oriokoa da proportzioan pertsonaleko gasturik altuena duen herria.

Motondoren etorkizuna zehazteko bilera Eusko Jaurlaritzako teknikariek, hauteskunde gertutasuna jakinda, udaberrian izan behar da. Orioko herriak 2 milioi ordaindu zituen lur horientzako, udaletxeak berreskuratu egin behar du diru hori.

Kofradiaren egoera lehenbailehen bideratzea, eraikin horren egoera ezin da gehiago luzatu. Oriotarrek ez eta eraikinak berak ez dugu egoera hori merezi.

Barra peatonalizatu eta argiteria jarri. Azken obra eta gero egin gabe gertatu zirenak bideratu eta bukatu.

Gaztetxea eraikin segurua bihurtu da teilatua konpondu ostean. Orain Gaztetxearen plan estrategikoa zehaztu gazteekin eta udaletxeko teknikariek.

Urteetan Orain taldeak bakarrik defendatu duena eta ofizialki eskatuta dagoena gauzatzeko, hau da, kontu-hartzaile lanpostua izateko tramiteak hasi RPTan txertatuz. Pertsonalaren inguruko batzorde monografikoa egin.


Eskatzen dugu, baita ere, Orioko arrisku puntuak detektatzea, zerrendatzea eta exekuzioa planifikatzea eta zehaztea. ■ **Orain Herri Plataforma**



75 m²ko **PISUA SALGAI** Aian, Santio Errekan kokatua

Prezioa: 165.000 euro
☎ 607 510 356

Hiru logela ditu, sukalde handia, egongela eta bainugela. Horrez gain, komunitate-lorategia eta kanpoko aparkaleku pribatua.



Aste Santua: matrakaren soinu lehorra

Elizaren tradizioan herriari otoitzera deitzeko kanpaiak erabiltzen dira.

Eliza barruan meza latinez eman eta apaiza herriari bizkarra emanda aritzen zenean, herriari mezaren zati garrantzitsuak kanpaitxo batekin adierazten zitzaizkion.

Ostegun Santuko aintzatic Larunbat

Santuko aintzara arte kanpaiak isildu egiten dira. Elizaren tradizioa zen kanpaiak mutu daudenean herritarrei deitzeko Matraka –soinu lehorra– erabiltzea, bai kanpoan eta bai barruan. Ohitura hori galdu egin da gaur egun. Badira salbuespenak, ordea: hemen Orion eutsio diogu Ostiral Santuko gurutze-biderako deiari.

Aurten ere goizeko 3:00etan hasiko gara Pilliku plazatik eta 5:00etan buka-

tuko dugu. Anibarko Portuan eta hondartzara inguruan ere egingo ditugu saioak aurten. Goiko mapan ikus daiteke egingo dugun ibilbidea.

Norbait laguntzeko prest badago, ongi-etorria izango da. Eta bateren bati enbarazu egiten badio Matrakaren soinuak, ulergarria da. Gauaren isiltasunean soinu lehorra kolpetik sortzen baitu Matrakak.

■ **Matraka Taldea.**

■ ZORIOTXARRAK!

Errepideko txirrindulariei

Las egin zuten Arrantzale kaleko bigorria. Obrak luzatu arren, 2015ean bukatu zituzten lanak. Bigorria bizikletak ibiltzeko bidea izan arren eta geroztik kale horretan bizikletak beren tokia izan arren, askok ez dute hori errespetatzen. Txirrindulari asko errepidetik joaten dira Arrantzale kalean. Hortaz, dagokion tokitik ibiltzea eskatuko diegu hilabete honetan txirrindulariei!

■ HILDAKOAK

■ Ramona Oleden Gonzalez de Txabarri, Orion, martxoaren 8an. 90 urte

■ EZKONTZAK

■ Noemi Ostolaza Arkauz eta Daniel Gonzalez Gonzalez, Orion, martxoaren 11n.

■ JAIOTAKOAK

■ Sara Gomez Gozategi, Orion, martxoaren 10ean.

■ Adur Otaño Lizalalde, Orion, otsailaren 23an.

■ Paula eta Aitana Beristain Murigiondo, Orion, otsailaren 15ean.

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara
688 859 682 (Idurre)
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



Feministorioko lehen egunean, saregileekin tertulia. ORIOKO XALTXERAK

Idatzi dute istorioko lehen atala

“Sare-jostera batu dira Orioko Xaltxerak, herriko feministen artean sare ederra eratu baitute”

Hitzak josten hasi zuten hilabetea feministek. Josi eta josi, itsasoari lotu diren emakumeen testigantzak entzun zituzten. Lehorretik itsasora begira bizi ziren saregileena. Eta sare-jostera batu dira Orioko Xaltxerak, herriko feministen artean sare ederra eratu baitute. Eta hartu-emanak estutzeko, sarea sendotzeko, Balea elkartean afaria egin zuten *Feminismoak egingo gaitu herri* lelopean berdintasuna aldarrikatu ondoren. Martxoaren 8an. Emakumeen Nazioarteko Egunean.

Lilaz margotutako egunaren bezperetan lilaz tindatu zen Donostia. Lilatoi lasterketa egin zen. 43 oriotar eta 3 aiar ere izan ziren uholde lila horren tanta. *5 kilometrotako erronka gainditu bagenuen ere, uste dugu berdintasunaren aldeko borrokan bide luzea dugula aurretik*, aitortu dute Nadeth Arruti eta Enara Etxeberrriak, *erlojua alde batera utzi, eta irrintzi eta animo oihu artean emakumeen aldeko aldarrikapen-festa honetara murgildu* ziren oriotarrek.

Donostiako kaleak hartu zituzten emakumeek martxoaren 6an; baina Donostiakoak ez zizkion, plaza publikoa hartzeko pausoa eman duten lehen emakumeei egin nahi izan die erreferentzia Iñaki Gurrutzagak Huntza taldearentzat idatzitako *Harro gaude* kantuan.

Harro itzaletik atera eta herriko kaleak hartu dituzten Orioko Xaltxerez. Harro Zaragueta Herri Eskolak horma-irudietara eraman dituzten emakumeez. Baina baita Donostiara joan ordez Orioko mendietan korrika aritu zirenez. Lokaztuta, hoztuta eta blaituta helmugaratu ziren 400 lasterkariez. Harro seigarrenez antolakuntza lanetan aritu direnez.



Emakume Langileen Nazioarteko Eguneko kontzentrazioa. KARKARA



Orioko Mendi Lasterketako hainbat laguntzaile eta antolatzaile. ZATOPEK

Ezagutzen al duzu Gure Esku Dago dinamika?



“Herri mailan ekimena ezagutzeko aukera izan dugu”

Mugimendua ezagutzen dut, gehiegi jarraitzen ari ez naizen arren. Aian, hasieran, duelta urte eta erdi edo, hitzaldi bat egin zuten eta han izan nintzen. Hitzaldi hartan azaldu zizkiguten Gure Esku Dagoren nondik norakoak.

Orduetik tarteka hainbat ekintza egin ditu Aiako Gure Esku Dagok, eta herri mailan ekimena ezagutzeko aukera izan dugula uste dut.

Herri galdeketa egitea gustatuko litzaidake, noski.

Horren alde nago. Herriak zer nahi duen jakitearen eta herriari bere iritzia ematearen eta aukeratzearen alde nago.

Amaia Guruzeta



“Ez nago gaien oso sartua, ez dut gertutik jarraitzen”

Gure Esku Dago dinamika ezagutzen dut, bai. Ez nago gaien oso sartua, ez dut gertutik jarraitzen, baina ezagutzen dut, bai. Aurkezpenak egin dituztenean eta ez naiz han izan, baina ezagutzen dut. Kaletik entzundakoagatik eta hedabideetan irakurri dudana gatik jakin dut gaiaren gainean.

Erabakitzeke eskubidearen alde beti egon naiz. Ondo iruditzen zait, beraz, Aian galdeketa egitea. Beti egon izan naiz galdeketa alde, eta nago. Herri mailan galdeketa egingo balute botoa ematera joango nintzatekeela uste dut. Orain boteprontoan erantzuten dudana arren, baietz pentsatzen dut.

Gustavo Beorlegi



“Ez dadila ekimena politizatu”

Ekimarekin erabat ados nago. Abertzalea eta independentista izanik, ondo ikusten dut. Hala ere, kudeaketan argi eduki behar da gizartea bera izan behar dela protagonista. Ez dadila politizatu ekimena.

Taldeko kide naiz, baina gauza askotan nabilenez, ez naiz dena ailegatzeko. Hala ere, taldean jendea mugitzen da. Aktibo daude. Herri bazkaria egin zen Karelan. Herritar andana hurbildu zen. Puntu positiboa dela iruditzen zait, eta ederra. Aurrera begira ea horrelako momentu polit gehiago bizitzeko ditugun, egunen batean, ideologik ideologia, herria batuta ikusi nahi baitut.

Ainhoa Usandizaga



FISIOTERAPIA

IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

“Gazteak dira, dudarik gabe, publikorik zailena”

Xabier Etxeberria

Idazlea

Urte oparoa izan da 2015a Xabier Etxeberriarentzat -Zarautz, 1974-. Bi liburu argitaratu ditu; Martin anaiarekin, lehena, *Gizon gogorraren sekretua*, eta bakarrik, bigarrena, *Eman amore*.

M. GARCIA

Anaiarekin batera idatzi ditu liburu gehienak Etxeberriak, haur literaturakoak batez ere. Gazteentzako literaturan murgildu da orain, *Eman amore* izeneko liburuarekin. Baina ez da iaz argitaratu zuen liburu bakarra izan. Anaiarekin batera idatzi duen *Gizon gogorraren sekretuarekin* nobela beltzean murgildu dira.

***Eman amore* da azkena kaleratu duzun liburua. Nolako harreari ari da izaten?**

Durangoko azokarako atera genuen liburua, baina ez genuen aurkezpenik egin. Azoka eta gero, ikastetxe zirkuitoan mugitu dugu zuzenean.

Salmenta aldetik ondo doala esan didate Elkarrekoek. Jendeari gustatu zaion edo ez jakiteko, pixka bat itxaron beharko dut oraindik.

Jon Zetak etxetik ihes egiten duenean hasten da liburua

Alde batetik, Greziako mito batean oinarritu nintzen idazterakoan, urtaroen sorreraren mitoan. Lurraren eta emankortasunaren jainkosaren alaba bahitzen du lurrazpiko jainkoak, eta heroi gazte bat haren bila joaten da. Azkenean, tratua egin eta urtearen zati bat lurrazpiko munduan eta beste bat Olinpoan pasako du alabak, eta horrela sortu ziren urtaroak Greziar mitologiaren arabera.

Beste aldetik, emaztearen lehengusu batek -Jon Zeta deitzen diote- kontatutako istorio bat ere izan dut gogoan. Behin lagun batzuen kontzertu bat ikustera joan zirela eta taberna zulo batean sartu eta galdu egin zirela.

Bi gauzak nahastu ditut, rock kontzertuak eta mitologiako elementuak. Gero, abentura eta maitasun puntuak ere badi-tu. Oso ondo pasatu nuen idazten.

Gazteentzat idaztea zaila al da?

Orain arte beti haurrentzako edo helduentzako liburuak idatzi ditut, gehienak anaiarekin. Niretzat, dudarik gabe, publiko zailena gazteak dira, zaila da jakitea zerk funtzionatu-ko duen. Hala ere, alaben laguntza izan dut idaztean, beraiek nola egingo zuten galdetzen nien. Munstroa sortzen lagundu zidaten, adibidez.

Haur eta gazte literatura ala helduentzako nobelak?

Proiektu desberdinetan aldi berean aritzeak burua konpartimentuetan bezala banatua edukitzea dakar. Ez nuke esango bata bestea baino gehiago gustatzen zaidanik, biek in-gozatzen dut.

Bi liburu argitaratu dituzu 2015ean. Urte ona izan al da?

Bai, oso ona. Anaiarekin publikatu nuen bestea, *Gizon Gogorraren Sekretua*. Bi urte eta erdi pasa genituen idazten. Dena ondo zaindu nahi genuen eta idazketa maratoni bat bezala izan da. Azkenean, kaleratu genuenean, poz handia sentitu genuen. *Eman amore*, berriz, bi hilabetetan idatzi nuen. Ideia bururatu eta segituan jarri nintzen idazten.

Zer ematen dizu anaiarekin idazteak, eta bakarrik egiteak?

Liburu gehienak anaiarekin idatzi ditut: haurrentzako guz-tiak eta lau nobela. Elkarrekin idazten dugunean talde lane-an egiten dugu. Bakoitzak ideia bat dauka eta adostu egin behar dugu. Umiltasuna izaten ikasi behar da, zure ideia hobe iruditzen bazaizu ere, negoziatzen jakin behar da.

Normalean, idazten hasi aurretik, urtebete-edo egoten gara hitz egiten, adosten, apunteak hartzen... Batzuetan nekagarria egiten da eta gauzak bakarrik egiteko gogo sar-tzen zaizu.



Bi liburu argitaratu zituen Xabier Etxebarriak 2015ean: *Eman amore* eta *Gizon gogorraren sekretua*. KARKARA

“Anaiarekin idazten oso ondo pasatzen dut, sintonia berean gaude biok”

Bakarka idaztean, hasiera batean, askatasun gehiago duzu eta azkarrago egiten duzu lan. Baina gero, adibidez, anaiari deitzen diot gauzak galdetzeko. Beste ikuspuntu batek aberastasuna ematen dio lanari.

Martinek idazten ondo pasatzen dut, sintonia berean gaude. Orain beste proiektu bat dugu esku artean, hirugarren batekin. Zailagoa izaten ari da hau.

Nobela beltzera egin duzue jauzi orain

Arrain abisala ere nahiko beltza bazen, baina *Gizon gogorraren sekretuak* generoaren pautak jarraitzen ditu, bai. Heriotzak, informazio dosifikatua...

Kritika sozialetik ere badu liburuak. Industriadun batean gertatzen da, krisi garaian. Genero beltzak hori du, gauza asko har ditzakeela barruan. Jon Alonsok esaten duen bezala, gaur egun dena izan daiteke beltza.

Hori guztiaz gain, gure mundu propioa ere sartu dugu liburuan: pertsonaia arraroak, taberna giroa... ez gara batere moztu liburu honetan, bururatzen zitzaigun ia guztia idatzi dugu. Oso ongi pasatu genuen idazten.

Batzango nobela beltzaren astean izan zineten urtarrilean -ilbeltzean-. Nolakoa izan zen esperientzia?

Irakurle talde batek antolatzen du Ilbeltza, eta gonbidatu egin gintuzten. Harrera oso ona egin ziguten eta badirudi liburu gustatu zitzaie. Nobela beltzaren irakurle zorrotzak dira Ilbeltzakoak, eta izerdi pixka bat bota arazi ziguten.

Euskal Herrian nobela beltza ez zela egiten esaten zen lehen, baina Ilbeltzakoek erakutsi dute ez dela horrela, asko eta ona egiten dela.

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

2GURPIL



Baxoalde 2 - 3 • 20810 Orio (Gipuzkoa)

Tf 943 835 980 Wi www.2gurpil.com E/ bigurpil@hotmail.com

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.



Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak. Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

azkue  **karrozeria** 

Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

ederritegia
ANTILLA
juleta



Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 28 09

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45


AIRIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

 Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

EKILORE GARBIKETAK



626417841
ekilore@outlook.es

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

ITZALA

kartetan jokatzeko proposa
tel. 943 83 12 59

III ZUEN ZOZKETA

Udazkena



Jokin Salsamendi

Jendea beste zebraibidetik zeharkatzen hasi zen berriro. Txaleko hori horiekin munduko trafikoa zuzendu daiteke!

Tta horrela joan zitzaigun udara. Denbora aurrera joan ahala hizkuntza asko ikasi genituen... *baukot, bazezkat, baizkit, badogu, badauzkat...* *ya tengo* eta gure peto horiaren ezkutuko indarrak ikasi genituen. Donostiako Bulebarrean ohartu ginen, nahi gabe, bere superpodereaz. Bi zebraibide zeuden Bretxa aurrean, eta batetik bestetik baino jende gehiago pasatzen zen. Beraz, jende gehiena zebilen zebraibide bukaeran jarri ginen boletoak eskaintzen, oinezkoen semaforoaren alboan. Ba gu hor jartzearekin batera, era misterioetsuan, jendeak beste zebraibidetik zeharkatzen zuen Bulebarra. Bost minutu inor pasa gabe igaro ondoren, bestean jartzea erabaki genuen. Ba indar boteretsu batzuen eraginez jendea beste zebraibidetik zeharkatzen hasi zen berriro. Txaleko hori horiekin munduko trafikoa zuzendu leike! Egitan.

Kilometro eguna bakarrik gelditzen zitzaigun. Urte guztia *Erria Txikotak* zer esan nahi zuen esplikatzeko pasa ondoren soka lepoaren bueltan genuen. Zozketaren txikotea erriatu eta etxezuloko karelean gelditzea gertu ikusten genuen. Iritsi zen urriaren 5a eta hantxe aritu ginen herrian barrena frontoiko artekarrien gisan, kolorao, boletoak saltzen. Ni San Martingo ermita baino lehenagoko kaskoaren gainean egon nintzen, arnasestuka kanposantutik gora zetorrenari abanikoak salduz, zaldiak eta paisaia ikusiz. Urte guztian gipuzkoarrek erakutsitako eskuzabaltasuna dastatuz, hainbeste jenderi eskerrak eman beharraz hausnartuz. Eta eguna pasa zen eta jakin genuen irabazlearen izena: Veronica Calvo Correas. Legazpin saldu genuen boletoa Artzai Egunean, eta Legazpin bizi zen goierritarrari tokatu zitzaion.

Talde zoragarriaren lana izan zen, aurretik gutxi ezagutzen ginenak eta pasatuko xebebrekeriek antzerki baterako ematen zutelako komentatzen genuen beti. Ez dakit horrenbesterako den baina *miniserie* hau idazteko adina eman digu behintzat.



Jon Garate

Gustuko lanak baliorik ez?

Tkus-entzunezko komunikazio ikaslea naiz. Jada gradua amaitzean nago. Hiru hilabete falta zaizkit bukatzeko.

Ikasketak amaitzen ditudanean, ikasi dudanetik bizitzea gustatuko litzaidake. Telebistan, produkzioan, aurkezle lanetan, irratian, bideogintzan... Berdin zait zein arlotan aritu, denak atsegin baititut. Eta hori da hain zuzen ere arazoa. Jendeak ez duela ulertzen norbaitek gustuko lana izatea.

Askoek lana obligazioarekin edota sufrimenduarekin lotzen dute. Nik berriz, nire lana atsegin dut. Horregatik batzuek uste dute nirea ez dela lanbidea, hobbya baizik. Azken hilabeteetan zenbaitetan kaletik geratu eta esan izan didate: *Hi, bideo bat egingo didak? Oso ona haiz horretan eta gainera gustatzen zaik.* Asmo txarrik gabe esaten didate, baina nik sentitzen dut nire lanak ez duela baliorik. Behin lanbide batek esan zidan: *Zuk igeltsero bati eskatuko zenioke zure etxean pareta bat eraikitzeko dohainik? Ez ezta? Baniri ere ez.* Atsegin dut nire lanbidea. Baina lanbidea, ogibidea ere bada. Egiten dudana gatik kobratuko ez badut, nondik biziko naiz?

Hori du gustuko lana izateak. Pozik egiten duzula eta, gainera, ordaindu egiten dizutela. Suerte ikaragarria da. Baina jendeak ikasi behar du, lana gustura eginatik ere, berdin-berdin balio duela esfortzuak.



Orioko 1954 urteko ortoargazkia. EUSKO JAURLARITZA

Azterketa linguistikoa, arnasguneeek arnasten jarrai dezaten

2014 hasi ziren Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren -HAPO-lehen pausoak ematen. Osatzen dabilta orain. Eta biribiltze horretan garrantzia eman diote Orioren izaera euskalduna eusteari. Nola? Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa eginda.



TESTUA: O. ARTOLA
ARGAZKIAK: KARKARA

Orio aitzindaria izan da ELE azterketa egiten. Azterketa horren bitartez, hirigintza proiektuek herriko hizkuntza errealitatean duen eragina neurtzen da. Hain zuzen ere, hirigintzari loturiko erabakiek euskararen ezagutzan eta erabilpenean zein eragin izango duten neurtzeko bali du; testuinguratzeko eta hausnartzeko.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak -UEMAk- Galesetik ekarri zuen azterketa hori joan den legegintzaldian. Foru Aldundiaren laguntzaz Euskal Herrira egokitu eta proban jarri zuen. Pasa den agintaldian hasitako bide horri jarraipena eman dio orain Orioko Udalak, eta Gipuzkoako lehenengo herria izango da halako ikerketa bat egiten.

Diputazioak jarri duen arren proiekturako diru partidarik handiena, 7.941 euro, finantzaketa hiru erakunderen esku gelditu da: Gipuzkoako Foru Aldundia, UEMA eta Orioko Udala.

Euskalduna, baina ez euskaldunagoa

5.800 biztanle ditu, gutxi gehiago, Oriok. Mende berriarekin bikoiztu egin da hazkunde demografikoa, modu ikusgarrian. 2001etik 2013ra %1,92 hazi da Orioko biztanleria.

Euskararen indizea %83koa da gaur egun. %76 euskal hiztunak dira, %13 ia euskaldunak eta %10 erdaldunak. Bilakaerari erreparatuz gero, azken hamabost urteetan, euskararen erabilerak behera egin du: 2011n %64rentzat zen euskara lehen hizkuntza, 1996. urtean baino 10 puntu baxuagoa da ehuneko hori.

Biztanle kopurua hazi ahala datu soziolinguistikoetan euskararen indizeak behera egin du. Behera gehiago egin ez dezan eta oriotarrek hizkuntza-nortasunari eutsi diezaioten Bost aktuazio-eremu nagusi aztertu dituzte: Aizperro, Dike, Mutiozabal, Palotak eta pilotalekua, Plan Orokor mardul bezain konplexuan lantzen direnak.

Eremu bakoitzeko hiru aukera

Aukera bat baino gehiago dago mahai gainean eremu horiek garatzeko. Aizperron 36000 metro koadroko industrialde bat eraikitzea da proposatzen den lehen aukera. Bigarrena, bere horretan uztea da.

Diken bi eraikin-lerroetan 150 etxebizitza egitea da lehen proposamena. Bigarren aukeran 200 etxebizitza egitea proposatzen da eta hirugarrenean 250 etxebizitza egitea, eta Arozenari dotazio publikoko izaera ematea aurreikusten da.

Palota eremuko lehen aukera bere horretan uztea da. Bigarrena, eremua guztiz garatzea, dentsitatea altuekin eta 766 etxebizitza egitea. Hirugarrena, zati bat garatzea, 250 etxebizitzekin, eta bestea erreserbarako uztea da.

Pilotalekuan ere hiru aukera daude. Lehenengo aukera frontoia lekuz aldatzea da. Oraingo kokalekuan frontoi txiki estali bat, 30 etxebizitza eta 60 garaje-plaza egitea da. Bigarrena, zonaldea biziberritzean datza. 33 etxebizitza eta 60 garaje-plaza egingo lirateke. Hirugarrenean ere zonaldea biziberritu nahi da 44 etxebizitza eginda.

Mutiozabalen, esaterako, hiru aukera daude. Bata, egungo Plan Orokorrekoa da, ordenaziokoa, baina Arin y Embil eta Mutiozabal ontziolaren eraikinetan ordezkapenak eginda. Bestea, zonaldea erabat eraldatzean datza. Bi kotatan eta



errio aldean ibai-parkea izango luke eta 86 etxebizitza aurreikusten dira. Hirugarrenean, gaur egungo bizitegiko eraikinak eta Mutiozabal ontziola –udalak erosi berri duen mantentzea proposatzen da, bi kotatan eta ibai parkearekin.

Eraikitzeak hizkuntzan eragin

Proiektuek hizkuntzan izango duten eragina aldatu egiten da etxebizitza-kopuruaren eta jarduera ekonomikoen kokaleku-motaren arabera. Aizperro garatzeak ez luke hizkuntza aldetik apenas eraginik izango arnagunean.

Diken hiru aukeren arteko alde nagusia etxebizitza kopuruan dago. Lehen bi aukerek izango luketen eragina moderatua da, baina hirugarren aukeraren eragina larria da, kanpoko jende gehiago ekarriko lukeelako.

Mutiozabalen, lehen aukerak ez luke eragin linguistikorik izango, bere horretan uztean oinarritzen baita. Bigarren eta hirugarren aukeretan etxeak egitea aurreikusten da; baina bada desberdintasun bat bien artean, izan ere, hirugarrenean Orio euskaldunagoa zen garaietako bi eraikin –kontserbafabrika eta ontziola– mantenduko liriateke. Dena den, hirugarrenak hainbat berezitasun eta abantaila izan arren hizkuntza-eraginaren aldetik, bi aukerek emaitza paretsuak ematen dituzte eta eragina, oro har, moderatua da bietan.

Palotak eremuan eragina bigarren eta hirugarren aukerek izango lukete; eragin larria, gainera. Bigarrenak, ordea, are larriagoa, ezagutzaren oso galera handia ekarriko bailuke.

Pilotalekuko hiru aukerek hizkuntzaren erabileran oso galera txikia ekarriko lukete.

Kontuan hartu beharreko datuak

Plan Orokorrean erabakiko da etorkizuneko Orio. HAPOk, berez, herria haztea edo handitzea dakar. Eta horrek eragin zuzena izango du hizkuntza erabileran. Ia kasu guztietan eragina kaltegarria da arnaguneentzat, nahiz eta aukeraren arabera da izango duen eragina.

ANJEL DEL HOYO “AHO BATEZ ADOSTU DUGU AZTERKETA EGITEA”

Zergatik da garrantzitsua zuentzat azterketa egitea?

Guretzat oso garrantzitsua da. Azterketa horrek etorkizunean euskararen erabilera zenbatekoa izango den esaten digu, beti kontuan hartuta ez dela ehuneko ehunean zurrira, metodo esperimentalak dela.

Zergatik da garrantzitsua Orion?

Euskara ondo errotuta dagoen herria da Orio. Eta horrelako azterketa bat egitean informazio ugari lortu daiteke hirigintzak euskararen izan dezakeen eraginaren inguruan. Eta guk hirigintzaren esparruko erabakiak hartzeko ikuspegi zabalago bat eduki nahi genuen.

Zuek interesa zenuten bezala, gainontzeko alderdiak ere ados zeuden...

Aho batez adostu dugu azterketa hau egitea. Hori garrantzitsua da oso. Beharrezkoa, bestela akaso ez baitzen egingo.

Azterketa egin dago dagoeneko. Hirigintza Planean isla izatea zuen esku dago.

Proiektu jakin bakoitzaren garapena erabakitzeke balio digu. Garapen bat edo beste aukeratu, euskararen izango duen eragina ezberdina izango da. Eta eragin hori ahalik eta txikiena izan dadin soluzio-bidea ere ezberdina izango da.

Helburua euskara ez kaltetzea da.

Fokua euskararen jarriko dugu, euskarak Orion duen protagonismoa ez galtzeko.

Dena den, ez dago araurik hori egitera behartzen zaituzte tena.

Etorkizunean hala izango dela pentsatzen dut. Hala izan behar du.



“Pentsatzekoa da eragin horiek pisua izango dutela erabakiak hartzerako garaian”

Jabier Zabaleta eta Pilar Azurmendi

Udaleko arkitektoa eta euskara teknikaria

Hirigintzak eragiten al dio euskarari?

Pilar Azurmendi: Gure eztabaidetako bat hori izan da. Berez, hirigintzak esparru guztietan du eragina: gure bizi kalitatean... Herria garatzean, egituraketak zerikusia dauka jendea erlazionatzeko moduan. Eta jendearen harremanetan hizkuntzak presentzia dauka. Herriaren egituraketa plan urbanistiko oso orokorren bitartez egiten da; xehetzen joanez gero, eguneroko laneko egituraketetan fokua jarriz gero –plazen antolaketak, adibidez–, planak ez dira horren orokorrak. Azterketa honen arabera eraikitzen den etxebizitza kopuruak eta eraikuntzaren iraupenak dute eragin berezia hizkuntzaren erabileran.

Gune berri bat sortzean, eraberritzean, etxebizitzak eraikitzea ezinbestekoa al da?

Azurmendi: Ez du zertan. Gertatzen dena da Oriok ez duela apenas industriagunerik. Bat aurreikusten da, baina oraingoz, ez dago. Hortaz, hitz egiten dugun eremu guztiak bizitoki eremuak dira.

Hizkuntzari dagokionez, eragin handiagoa dauka erabile-rahitua ohituretan bizitoki eremuak, jendea hor erlazionatzen baita, herritarrek hor egiten baitute bizia.

Jabier Zabaleta: Ez da hipotesi bat ere. Hori gertatu egin da, ikusi dugu dagoeneko. 2001etik aurrera–edo, hemen etxe berri ugari eraiki dira, hondartzaldean, eta erriberako plan partziala ere garatu da. Horrek sortu du etxebizitza kopurua handitzea, parte batean, kanpotik etorri dan jendearekin.

Kanpotik diodanean ez du esan nahi Madril edo atzeritik. Gehienak hemen inguruko herritatik etorri dira, eta asko euskaldunak, gainera; baina ez dira euskaldunak oriotarren proportzioan. Erdaldunagoak dira, beraz, horren eragina nabarmena da.

Azken hamarkada honetan hizkuntzaren ezagutza, erabiler... jaitsi da. Oso nabarmena izan da.

Azurmendi: Eta helburua ez da, horrenbeste, etxeak ez egitea. Baizik eta kontziente izanda hori horrela dela, kontuan hartzea zer plan jarriko den martxan horren efektuak ahalik eta txikienak izateko, baldin eta helburua euskara maila mantentzea bada. Eta, printzipioz, Udal honek hori babesten du.

Eraitza horiek isla izango dute Plan Orokorrean?

Azurmendi: Informazioa da. Egiteko momentu egokia haur, oraindik ez baitaude erabakiak hartuta. Erabakiak hartzeko informazio gehigarria izango dute orain.

Zabaleta: Guk azterketa egin dugu eta orain politikariek erabakiko dute dauden aukeretatik zeinen alde egingo duten. Politikariak, behin eta berriz, adierazi dutenaren arabera, herriaren euskalduntasunari eutsi nahi zaio. Hortaz, pentsatzekoa da eragin horiek pisua izango dutela eta erabakiak hartzerako garaian hori kontuan izango dutela.

Nola eutsi herriak duen izaera euskaldun horri?

Zabaleta: Momentu honetan, legez, ez dago ezer araututa. Arnasguneen babesaz hitz egiten da eta nahiko adostasun politiko eta tekniko dago arnasmuneak benetan euskararentzat garrantzitsuak direla eta babestu egin behar direla. Baina, modu nahiko harrigarrian, adostasun hori ez dago gauzatuta inon. Ez dago lege batek esaten duena arnasmuneetan nola jokatu behar dugun. Edo, ez dauzkagu euskararen aldeko politikak egiteko diru laguntza gehiago, adibidez. Eta nik lege hutsune bat ikusten dut, kontu ideologikoaz aparte ez baitago neurririk.

Legez araututa ez dagoenez, guztia politikarien nahiaren baitan geratzen da. Orduan, honek zer eragin izango duen zaila da esaten, baina behintzat gaia mahai gainean jartzea lortu da. Orain, erabaki bat hartu behar dutenean, besteak beste, edukiko duten informazioa da hizkuntzaren gain zein eragin izango duen.



Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra



Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

ttipi
ttapa

943259695
ttipittapa.oihane@gmail.com
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

ASADOR
XIXARIO

Eusko Gudarien Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

URAITZ

Lurrindegia
jantzi-sagarriak

Endata, 3 Tfn: 943 83 18 9

SU
KIA

TABERNA · JATETXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF.: 943 892 129
ABAROMENDI 3A, 1. BAIJUA

WWW.FOTORAMIRO.COM

943 831048
610 697 668

obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua

arKitektura

borja agirresarobe lopetegi
herriko-barra 6, behea
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN

Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

BODEGAS

Gailur

01307 BARRIOS de GIBRO
Tel/Fax 943 00 91 58
www.bodegasgailur.com
Abarar Erronka

ZUDUGARAI

Gelariako Txakolina

Tel. 943 83 03 80
Fax 943 83 59 52
bukolizudugarai@euskalnet.net
www.bukolizudugarai.com

Carmen eta Txomin

ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Telf: 943890416

Gaberna

Orio
Menua

Herriaren esku dago



Aitor Arregi



upa, irakurleok, gaur adiskide berriarekin natorkizue, izan ere Balerdi jaunak ezin izan dit sokatira honetan lagundu. Gaur Zumeta jaunarekin partekatuko dut ataltxo.

Zumeta jaunari soka bere aldera eramaten lagundu nahi diot. Bion esku dago, soka, nahi dugun tokira iristea, zuen kontzientzia edo gogora bada, hobe.

Gure Esku Dago, herri ekimen bat da. Herritar talde batek osatua eta gauzatua. Ez da alderdi edo instituzio bat. Herritar talde honen helburua euskal herritarrok herri bezala izan dezakegun etorkizuna erabakitze eskubidea izatea da.

Zer gertatzen zaigu, hortaz, bizi garen herri hauetan, Aian eta Orion? Ezjakintasuna ote? Beldurra? Edo ezjakintasun beldurgarri bat, hots, utzikeria edo nagikeria izan liteke. Ustez, demokrazia batean bizi gara, lasai hitz egin eta lasai adierazi ditzakegu gure ideiak, eta hara non, herritar talde batek herriari zer izan nahi duen galdetzeko aukera eman nahi dionean, herriak bizkar ematen dion.

Gogoan ditut, ez ziren aspaldi izan, Iruña eta Durango arteko giza katea, edota euskal hiriburuetan egin ziren hainbat ekitaldi, oihal josteak tarteko. Zeinen politikak eta ze indar erakusketa. Baina gure herrietan, ustez, lan gutxiago eskatzen duten ekimenetan, oihartzuna oso xumea izan da. Gure herrietan, eta ez naiz ari errietan, ez dago, nonbait, herritartasuna edo erabakitze eskubideagatik kezkarik. Poztuko nintzateke oker banago, baina oker ez nagoen susmoak ditut. Noiz izan du Euskal Herriak hau baino aukera politikorik? Herriak, herritarrek hala erabakita, erabaki dezake etorkizuna, ozen esan zer izan nahi duen etorkizunean. Beldur naiz ordea, adiskidea, herritar batzuen amets eta lanek herriak bizkar emanda amaitu behar ote duten.



Jokin Zumeta



aixo, adiskideok, Arregi jaunak esan digun bezala, gaurkoan neu nator sokari beste aldetik eustera. Esan beharra daukat arkatza eta paperaren herri kirolean ez naizela oso iaioa, baina saiatuko naiz euskaldunek aurten Herbeheretako goma gaineko munduko txapelketan emandako maila ematen. Bejondeizuela!

Nik, Gure Esku Dagoren ekimena gertutik jarraitzen ari naizen heinean, esan beharra daukat gai honen inguruan jendea hotz antzean sentitzen dudala, bai Aian, bai Orion. Guk ez ote dugu asmatu jendearengana iristen? Edo jendeak pentsatzen du, *zuek egin eta ni joango naiz egunean bozkatzera eta kitto!*

Gure Esku Dago gora, Gure Esku Dago behera, zer dago gure eskuetan? San Migel botila batean eta Ducadosa bestean. Ba, pasa dezagun Ducadosa ezpainetara eta libre geratuko zaigun esku hori edozer gauzatan laguntzeko, izan Gure Esku Dago, Herrira, Gaztetxea, Festa Batzordea... baina eduki dezagun esku bat beti prest.

Baina, Aitor, kritika hauek alde batera utzi eta esan beharra daukat baikor nagoela. Apirilean nola Orion ala Aian herri batzarrak egingo dira, herritar guztientzat irekita, eta bertan gu baino adituago den baten ahotik entzungo dugu herri galdeketen prozesua. Esperantza daukat, bertan garenon energiak batu eta sinergia bat osatuko dugula.

Aurten Goierrin, Debagoienan, Azpeitian, Diman... Hurrengo urtean Usurbil, Ondarru, Bermeo... Eta zergatik Aia eta Orion ez? Ez gara besteak baino gutxiago, ezta?

Ia bada, animatu eskua luzatzera, denon artean ahal dugu eta lortuko dugu. Gu motore diesela gara, arrankatzea kostatzen zaigu, baina behin abiatutakoan inork ez gaitu geratzen, eta inork ez gaitu geratuko!

Bailara eraikiz

Urola Kostako Udal Elkarte

Urdaneta bidea 6, Zarautz



Urola Kostako Udal Elkartearen Ingurumen Sailak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkizu hondakinak bereiztuta biltzeko.

- Kaleko edukiontziak: papera, ontzi arinak, beira, arropa eta etxeko tresna elektriko txikiak, olioak, pilak, hondakin organikoak...
- Hiru garbigune: Zarautz, Zumaia eta Aian.
- Birziklatzeko etxolak: Aia, Getaria eta Zumaian.

BIRZIKLATZE TASAREN BILAKAERA

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako birziklatze tasak gorantz egin du azken bost urteetan. Jasotzen diren hondakinetatik birziklatzera bideratzen den kopurua nabarmen areagotu da.

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Kaleko edukiontziak	27,12	28,84	35,66	39,27	40,28	39,49
Kaleko edukiontziak eta garbiguneak	33,74	35,13	41,00	44,55	45,44	46,99

KANPAINAK

- Eskolako Agenda 21: 11 ikastetxetan, 6.000 ikaslerekin.
- Konposta ikastetxeetan, Zisare programa: 11 ikastetxetan, 600 ikaslerekin.

KONPOSTA

Gaur egun, 763 familia ari dira konposta egiten eskualdean, etxean konpostagailua jarrita batzuk, auzo eremuak erabiliz beste batzuk. 14 eremu daude eskualdean auzoan konposta egiteko.


Ontzi arinak, papera eta kartoia

ONDO ARIGARA// Kaleko edukiontzien bidez, urteko eta biztanleko jasotzen ditugun ontzi arin eta paper kartoia ren kopuruan Gipuzkoako eta Euskadiko batez bestekoen gainetik gabiltza. 2015ean, biztanleko batez beste 22 kilo ontzi arin eta 52 kilo paper/kartoi jaso ditugu.


BAINA HOBETO EGIN NAHI// 2015ean, edukiontzi horian jasotako hondakinen %19a ez zego kion edukiontzi horri. Hori hobetzeko, kanpaina bat jarri dugu martxan, ontzi arinak, papera eta kartoia hobeto bereizteko. Edukiontzi urdin eta horietan kartelak ikusiko dituzu, bakoitzean zer bota eta zer ez argitzen laguntzeko.

Ontzi arinak

Ikus edukiontzi bakoitzean utzi behar diren hondakinen zerrenda zehatza www.urolakosta.eus webgunean



Paperezko eta kartoiko ontziak, egunkariak eta aldizkariak





LUIS LIZARRALDE

400 lasterkariak txapeldun

Euria, kazkabarra eta haizea. Guztia lokaztuta. Eta, hala ere, 400 korrikalarik ekin zioten mendi lasterketari pasaden martxoaren 6an. 22 kilometro eta 1.100 metroko gora-beherak ez zituen korrikalariak kikildu. Seigarrenez antolatu zuen Ikastolak mendi lasterketa eta, seigarrenez, parte-hartzea bete zen.

Ibon Berasaluze izan zen lehen gizonetzko oriotarra eta Hodei Alkorta lehen aiarra. Sara Peñak amaitu zuen lehen emakumeetatik. Baldintza horietan korrika egiteak txapeldun bilakatu zituen partaide guztiak.





“Herri bat intelektualki aberatsa kulturak egingo du”

Maidar Beldarrain Iribar

Tabakalerako komunikazio eta garapen zuzendaria

Tabakoa egiten zen etxean kultura kozinatzen da orain. Maidar Beldarrain Iribar -Getaria, 1986- da sukaldarietako bat, komunikazioa eta garapen zuzendaria da iaztik.

O. ARTOLA

Batzuek udako oporrak hasi zituztenean hasi zen Beldarrain Tabakaleran lanean. Uztailean, sei hilabete iraun zuen hautaketa prozesuaren ondoren. Haurdun zegoela hasi zuen prozesua, eta bukatzerako, ama zen. Alabaren jaiotza pozgarria bezain lagungarria izan da, etxeratzean lanetik erabat deskonektatzen laguntzen dio etxeko txikiak.

Pentsatzen dut egin dizueten galdera errepikakorrena *Zer da Tabakalera izango dela...*

Donostian kokatzen den Kultura Garaikidearen Nazioarteko zentroa, 37.000 metro koadro dituen. Espazio hori proiektu kulturalarekin, ekosistema kulturalarekin eta plaza publikoarekin betetzen ditu.

Proiektu kulturalak bi helburu ditu. Batetik, sormena, sorkuntza zentroa baita Tabakalera eta horretarako baliabideak ematen baitzaizkio sortzaileari. Eta, bestetik, programa publikoa dauka. Bi ardatz horien baitan lau lan ildo ditu: praktika artistiko garaikidea, hezkuntza, Hirikilabs eta Ubik liburutegia. Labur esanda, sortzaileen gunea du batetik eta hainbat ekitaldi, transbertsalagoak, bestetik: erakusketak, zine proiektzioak, mintegiak, aurkezpenak eta tailerrak

Ekosistema kulturala proiektu kulturalen eta bizilagun

ezberdinen arteko uztarketan sortzen da.

Tabakaleran kale espazio asko dago. Aterpean dago, etxe barruan, baina era berean espazio irekia da.

Hiritarrak, akaso, nahasi samar zeuden atepak ireki zirenean, baina jakin-mina ere bazuten...

Pasa den uda, guretzat, ez zen existitu ere egin. Gau eta egun aritu ginen lanean irailaren 11n Tabakalera irekitzeko.

Badago jendea urteak daramatzana Tabakaleran lan egiten eta berentzat bereziki bidea luzea izan da. Aurreikuspen onenean ere ez genuen inondik inora irudikatzen 28.000 pertsona etorriko zirenik asteburu hartan.

Pozik geratu ginen, baina errespetu handia sorrarazi zidan horrelako harrera edukitzeak. Gauzak ondo egiteko obligazioa sentitzen dugu.

Tabako lantegi zaharberritua da. Espazio batzuk bere horretan utzi dituzue, zergatik?

Ehun urtetik gora egon zen tabako fabrika martxan. Ateak itxi zituztenean erabaki zen Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa izango zela. Garai bateko eraikinarekin bat egin dute elementu berriek, prismak edo kristalezko kupulak esaterako, eta ikur bilakatzen ere ari dira



askorentzat. Tabakalerak aukera hori ematen du, bakoitzak bere egitearena...

Bai? Baina ez gaude ohituta horrelako zentroak gure egitera, ezta?

Irekia eta publikoa da. Erabilera ezberdinak eman diezazkioke. Erakusketa ikusi dezakezu, prismara igo eta Donostia beste ikuspuntu batetik ikusi, Ubik liburutegira joan... Liburutegiarena ere aldaketa handia da, kontzeptualki sortzera animatuko batzaitu. Ez duzu isilik egon behar, 3D inpresorak daude... Izugarria da horrelako zentru bat Donostian egotea eta edonork benetan sortzeko aukera izatea. Sortzea, zerbait berria da, ez gaude ohituta. Aldaketa asko dira eta horregatik garrantzitsua da oso hezkuntzako taldea egiten ari den lana ikasle eta familiekin. Nolabait, kultura garaikidea herritar orori zabaltzen ari dira.

Ohiturak edo aurreiritziak asko aldatu behar ditugu, beraz.

Iruditzen zait kulturak asko laguntzen duela bizitza ulertzen. Bakoitzak bere egunerokoa dauka, baina aisialdian hemendik pasa eta dagoen aukera zabal horretan zure txokoa aurkitzea polita da oso. Bizitza ez nuke hori gabe ulertuko, gauza ugari pentsatzera eramaten baitzaitu. Tabakalera programa publikoa izanda, edonork atera dakioko zukua. Euria egiten duenean, adibidez...

...euria egiten duenean, adibidez, jende asko merkatal zentroetara joaten da.

Bai, baina hau ere bete egiten da, aterpea baitago hemen eta familientzako eskaintza baitauekagu. Ohiturak aldatzen jo-

“Aldaketa asko ari gara eskatzen eta gizarteak horretara egokitu behar du”



“Astean 15.000 pertsona etortzen dira eta erakusketara 2.200. Zifra oso altuak dira; hau hasi besterik ez da egin”



ango dira, esperantza daukat, bestela ez nintzateke hemen egongo.

Hainbat erakunde publikok Tabakaleran dute egoitza, baita pribatuek ere. Nola uztartzen dira?

Erakunde publikoek erabaki zuten beren egoitzak hemen egon behar zuela, baita inizatiba pribatuek ere. Funts ezberdina daukate, baina uste dut ekimen pribatuek indar handia ematen diotela eraikinari eta bat datozela Tabakaleraren izaerarekin.

Zuenean euskal sortzaileek zein protagonismo izango dute?

Ez da zertan euskal sortzailea izan Tabakaleran tokia izateko, baina orain, esaterako, bost artista euskaldunek egindako erakusketa daukagu. Naturalena da bertakoek ere presentzia edukitzea, baina ez dizkiogu inori ateak ixten.

2016 kultur hiriburutzaren urteko programazioa Tabakaleran aurkeztu zen. Eskutik helduta zoazte bi proiektuak?

Harreman estua daukagu, proiektu asko ditugu komunean. Jendeak nahastu egiten gaitu, baina kultur hiriburutza urtebeteko kontua da eta Tabakalera 2017an ere hor egongo da. Luzerako proiektua da. Elkarriz zapaldu beharrean elkarlanean aritzen gara. Modu naturalean egin ditugu lotura horiek.

Kortxoenea ere bazen, baina eraitsi egin zuten. Susmoa dut agintariek Tabakalera bezalako proiektuak lehenetsi nahi

dituztela eta autogestionatuak ezerezean utzi.

Beren momentuan publikoki eman genuen gure iritzia, benetan sinesten dugulako kultur eredu ezberdinak elkarbitzi daitezkeela. Kortxoenea Gaztetxeak sortzen duen mugimendua eta Tabakalerarena ez dira antagonikoak, inondik inora. Guk hori sinesten dugu eta hori esan genuen.

Errezeloa daukat askok Tabakalera ez dutela gertuko sentitzen instituzioekin lotzen dutelako...

Jakina, Tabakalera diru publikoarekin egin da, eta eskerrak. Baina askori horrek sortzen dio zuk diozun errezeloa. Baina ni morratu egiten naiz jendeak dirua kulturari gastatzea zalantzan jartzen duenean. Gastua baino inbertsioa da. Herri bat intelektualki aberatsa kulturak egingo du. Hautematen zailagoa dela? Bai, ez da horren erraza ikusten. Ez dela porlana? Jakina. Edukia da.

Egonkortzeko ere denbora beharko du...

Astean 15.000 pertsona baino gehiago etortzen dira. Erakusketara 2.200 astero. Zifra oso altuak dira. Hau hasi besterik ez da egin. Jendearengan errotzeko balio nahikoa duela iruditzen zait.

Tabakalerak zer bide hartzea gustatuko litzaizuke?

Lan handia dago egiteko eta, bide horretan, pauso asko eman behar ditugu. Jendeak urrats bakoitza luparekin begiratzen du, baina luzerako proiektua da. Askok sinesten dut hemen sortzen eta sortuko den guztian.

Laguntza, etxean bertan

Pinpirin, etxe laguntza eta dependentzia

Abeslari kalea, 4



Biztanleria etengabe zahartzen ari da eta bizi-itxaropena gero eta handiagoa da; horrek, autonomia pertsonalarekin lotutako behar berriak dakartza adinekoentzat. Behar horiei aurre egin eta dependentziarako laguntzak emateko sortu da Pinpirin.



Gero eta urte gehiago bizi gara eta bizi-kalitate hobegoarekin. Pertsona helduen autonomiarako eta dependentziaren prebentziorako neurriak hartzeko beharra eragiten du horrek.

Horrez gain, emakumeak lan munduan sartzeko familia egitura tradizionalak aldatu ditu. Familiak, askotan, ezin izaten diote zaintza lanei aurre egin, baina ez dituzte adinekoak zentroetan utzi nahi, ingurunearekin hausturarik ez sortzeko.

Abiapuntu horrekin sortu dute Pinpirin Marina Friasek eta Aitziber Indartek. Beharrak dituzten pertsonen laguntza eta zaintza dute jarduera nagusi, eta etxean ematen dute zerbitzu hori, paziente bakoitzaren beharretara moldatua.

Informazioa eta orientazioa eskaini-

ko dute, batetik. Helduen eta beren familien beharrak entzungo dituzte eta pertsona bakoitzarentzat zerbitzu egokienak aukeratu dituzte.

Orotariko zerbitzuak ere eskainiko dituzte: laguntza pertsonala, etxeko laguntza, ospitalean eta osasun zentroan laguntza, erizaintza zerbitzua... Pertsonen autonomia maximoa estimulatzearen garrantzia aipatzen dute, egiten lagunduz egiten ordez.

Azkenik, etxeko zaintzan lan egiteko formazio ofiziala eskaintzeko proiektua dute. Autonomia Pertsonalerako eta Dependentzia Egoeran dauden Pertsonen Zaintzarako lege berriak etxeko zaintzan lan egiten duten pertsonen titulua eskatzen die, eta titulu hori lortzeko formazioa eman nahi du Pinpirenek.

1. LAGUNTZA PERTSONALA

- Norbere higiena
- Etxe barruko mugikortasuna
- Botiken kontrola
- Elikadura ohiturak
- Norbere zaintzarako eguneroko jarduerak
- Ultzerak sahiesteko azalaren zaintza
- Pertsona inkontinentei oinarritzko zainketak
- Laguntza teknikoaren erabilera egokian laguntza

2. ETXEKO LAGUNTZA

- Etxearen gabiketa
- Janariak prestatu edo eramatea
- Arroparen garbiketa eta txukunketa
- Erosketak egiteko laguntza

3. GIZARTE-KOMUNITATE LAGUNTZA

- Konpainia eta ibilaldiak
- Aisialdi jarduerak egiteko laguntza
- Tramiteak egiteko laguntza
- Autoestimua lanketa
- Bizimodu aktibo eta osasuntsua

4. FAMILIEN ZAINTZA LAGUNTZA

- Kontsultara joateko laguntza
- Zaintzaileen formakuntza

5. OSPITALEAN ETA OSASUN ZENTROAN LAGUNTZA

- Gau edo egunez konpainia ospitalean
- Kontsultara joateko laguntza

6. ERIZAINZAZ ZERBITZUA

- Ebakuntza ondorengo erizaintza
- Erizaintza zerbitzu sorta
- Erizaintza zerbitzu zehatzak

7. BESTEAK

- Etxez etxeko zerbitzuak: ileapaindegia, podologia, psikologia, fisioterapia...



LAN POLTSA IREKIA EKARRI ZURE CURRICULUMA

Abeslari kalea, 4
pinpirin.orio@gmail.com
666 43 43 21
648 04 51 25

Datorren urtean hobeto

Kritika Datorren urtean hobeto

Antzezlanak, Itziar Urretabizkaia, Ainhoa Garai eta Iraitz Lizarraga.



Lizarraga, Garai eta Urretabizkaia. G. MANTEROLA

Aurreko ostiralean, hilaren 4ean, *Datorren urtean hobeto* antzezlanak gozatzeko aukera izan genuen Orioko Kultur etxean. 40 urte inguruko emakumeek buruan izan ditzaketan arazoak, pentsamenduak edo buru-hausteak kontatzen dituzko modu kritiko eta umoretsuan. Obra monologoek eta eguneroko egoeren parodiak osatzen dute, eta hainbat azaleko gaien artean benetako arazo bat edo beste ere kontatzen du.

Nahiz eta emakumeen gora-beheretan zentratzen den lana, hainbat gizon eta gazte identifikatuta senituko ginela iruditu zitzaidan, gizartean puri-purian dauden gaiak jorratu baitzituen: etxea erosteko zailtasunak, lan baldintza tamalgarriak...

Mezu nagusia bizitza irribarrez eta umorearekin hartu behar dugula zen. Bestela, bi arazo izaten ditugulako, batetik benetako arazoa eta bestetik egoera aurrera eramateko bere buruarekin duen haserrea. Ni gauzak umorez hartzearen aldekoa naiz, bizitza bakarra delako. Bestela jai daukagu...

A, eta segi horrelakoak antolatzen, ostiralerako plan hobetik ez da izaten eta herrian!

BEÑAT GAITON

IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrajerros@yahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDURIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

Tipi-tapa, tipi-tapa, katuara bokata ederrak jatera

KATUA
taberna

Anibarko portua 35, behea
Tf: 943 840 060

PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

Katu Horia
albaitaritza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia
668 89 11 29

www.katuhoria.com



Arantzazun elur artean

8/MAR/2016

Nartxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna izateaz gain, txango eguna ere izan zen Orioko jubilatuentzat. Urtero bezala, Zaharren Babeslekuak antolatuta, Arantzazura joan ziren lau- rogeita bi lagun eguna pasatzera.

Elur ugari omen zegoen Santutegian, zuri zuri ikusten omen zen inguru guztia. Hamaiketokoa jan eta meza entzun ondoren, Aburuzara joan ziren guztiak bazkaltzera. Txuleta jan eta sagardoa edanda, bapo itzuli ziren jubilatuek etxera, eguna ongi aprobetxatutako sentsazioarekin.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka- rritakoa dela jarrita.

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine.

15eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orrio

943 134 889 argine/jantziak

ARISTERRAZU
jatetxea

Andatza auzoa AIA

Tel. 943 83 45 21

EXP

ELEKTRIZITATEA

Ander Exposito

943 831 774
600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com

Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

Garbine Arregi

Moda eta osagarriak

Herrita plaza, 5
635 706 265

jaiegunean goizez zabalik!

GARMENDIA

INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1

Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

HAIZE BERRI
taberna-jatetxea-kalategia

Plater konbinatuak,
bakalak,
hanburgesak,
razioak,
eguneko menua...

ostiraletan pintxo pote!!

eta etxera eramateko zerbitzua!

943 831 623

Orioko kiroldegian, Eribera 1

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03



Imanol Manterola

Kaxildaren lezioa

Ezagutuko ote naik? Ez dia uste, neopreno, txaleko, bixera betaurreko beltz eta abarrekin ezinezkoa dek! Baina baita zera ere Manterolaaa! oihu batean hasi zitzaidan parera iristean

015eko maiatzaren 30a. Zarauzko kayak-zaleen elkarteko beste zenbait kiderekin Ondarretako hondartzatik itsasora abiatu nintzen arrebaren piragua hartuta. Gainontzeko guztiek Zarauzko kosta zuten helmuga, baina nik, Orioko Etxeluze pareko arranpla. Banuen kezkarik barruan, sekula trabesia hain luzerik ez bainuen egin itsasoz. Egia aitortu behar badut, uste baino erraxago iritsi nintzen Orioko bokara, eta marea goraka zihoanez, erriorearen laguntzaz, heldu nintzen zubi parera, eguraldi ederraz eta bista paregabeaz gozatuz. Gaztetxe pareko arranplan, piragua uretatik atera eta karrotxoan jarri eta gero, herri aldera jo nuen..

Halaxe nindoan bada ontziari tiraka eta bat-batean ikusi nuen urrutira Kaxilda. *Ezagutuko ote naik? Ez dia uste, neopreno, txaleko, bixera, betaurreko beltz eta abarrekin ezinezkoa dek!* Baina baita zera ere *Manterolaaa!* oihu batean hasi zitzaidan parera iristean. *Manterolaaa!* ukabila airean astintzen dikeko morena. *Djoss, jende ona zeate Txagatarrak, jende gogorra, langilea!* baina jatea ere *gustuko dezuena!* Zuzenean ikusi duenak bakarrik imajina dezake hau guztia dagoen dramatismoz. Hantxe eduki ninduen ukabila airean astinduz 10 minutuz edo. Eta bukaeran gaineratu zuen *hortza ederrak dituk gero!*

Kaxildarekikoak eginik, behin piragua jasota, autoz Zarautz aldera abiatu nintzen. Ezin nuen kendu burutik Kaxildaren imajina *jende langilea, baina jaten badakizuena!* Gogoratu nintzen Txaganeko gure aitona-txikiaz, balea harra-patu zuenaz. Gogoratu nintzen ere, nire aitaz eta familiako beste zenbait gertakaritaz *jende gogorra, baina jateaz ere gozatzen dakizuena.* Bere etorkizunaren alde borroka egin duen jendea, lanak zaildutakoa; baina era berean, bizitzaz gozatzen dakiena, bere txikitasunean, bere handitasunean. Buruan jiraka nituen Kaxildaren hitzak...

Gauean, ordea, gogora etorri zitzaizkidan, aitona Gregoriorekin traineruan joan ziren gainontzekoak, eta beste patri eta arraunlariak. Jabetu nintzen herri osora zabal zitekeela kasik Kaxildaren deskripzioa. Eta konturatu nintzen Kaxildak erakutsi zizkidala bizitza honetako zoriontasunerako bidearen bi adar inportante.

Eskerrik asko Kaxilda!

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50
sagasti@sagastileihokak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)



Luis Irastorza Itxaspe eta Ramiro Garcia zena, 1960ko hamarraldian, aguazil zirela. LUIS IRASTORZA

Serenoa, gaua zaintzen

Oroimenaren kutxa

Serenoa gaueko aguazila da, ilunpetako langilea. Orain ez dago serenorik Orion. Juan Priede izan zen azkena. Haren aurreko Luis Irastorza *Itxaspe* da bizirik dagoen bakarra Orioko serenoetatik. Luisek gogoan ditu bere aurreko azkenak. Gerra ondoren, Jose Luis Fernandez, eta gero, Lorenzo Alkorta *Lontzo*, Inazio Etxezarreta *Katxiña*, eta Migel Ibarreta *Tongo*.

1946an serenoa hartzeko deialdia egin zuen Orioko Udalak, baldintza hauekin: 2.555 pezetako urteko soldata –oraingo 15,33€–; espainiarra izatea; 23 urtetik 50era bitarte; jokera ona eta aurrekari penalik ez; osasun eta gaitasun fisiko ona; azterketa bidez frogatzea ondo zekiela irakurtzen eta idazten, eta lau eragiketa aritmetikoak; erabateko atxikimendua *Glorioso Alzamiento Nacionalari*. Bakarra aurkeztu zen, Lorenzo Alkorta Azpiroz; baldintza denak betetzen zituela-eta izendatu zuen sereno Ramon Uranga alkateak.

Luis Itxaspe 1964tik 1976ra arte izan zen aguazil, urte batzuetan sereno. Haren bidez jakin ditugu lanaren gorabeherak. Oinez jaisten zen baserritik hondartzaraino, kostako bidean barrena; eta bizikletaz, herrira –hondartzako aldageletan izaten zuen gordeta–. Arratseko zazpietan hasten zuen lanaldia neguan, eta gaueko hamarretan udan, iluntzarekin batera; eta hamaika ordura, etxeratu, kaleko ordenaren ardua aguazilaren eskuetan lagata. Benetako ilunpea zen ordukoa, kalean ez omen zegoen-eta argirik. Tabernak ixteko ordua zaintzea zen serenoaren zereginetako bat. *Hori ez zen zaila, tabernariek elkar zaintzen zuten, ea besteak noiz ixten*

zuen! Ur-deposituak zaintzea, beste bat, eta urari kloroa botatzea: San Juan ermita ondokoa, Katxiñakoa eta Aiako A(ra)ngu(r)en baserriaren ondokoa.

Txapel gorria, alkandora grisa eta galtza ilunak, horixe uniforme; udan txaketa eta neguan kapa urdin iluna. Makila ibiltzen zuen eskuan; gerritik zintzilik, porra eta pistola. Ez daki pistola ba ote zebilen ere. Ez zuen inoiz erabili. Porra bai, behin baino gehiagotan. Beste arma bat ere bazeukan: udal-txeko kalabozoaren giltza. Han pasako zuen gaua bazterrak nahasten hasitako gautxoriak, eguna argitu arte.

Gauaren luzea laburtzeko, panaderiaren berotan hartzen zuen atsedean. Hara biltzen ziren gainerako gautxoriak ere: guardia zibilak, gaupaseroak, Bihotza putetxeko neskak... Antonio okinarekin batera, arrantzaleen kofradiarainoko paseoa zuen gaueroko ohitura; han, eguraldiak nolako tankerara zekarren antzemateko, arkupeetan zegoen barometroari erreparatu eta buelta.

Lapurreta konturik ez zen izaten. *Orduan automobilik ia ez zen batere, eta inork ez zuen giltzaz ixten, etxe asko ere ez; Madriletik etorritako guardia zibil bat, kabo primera, harritura egoten zen, esaten zuen Madrilen zabalik lagaz gero gau batean eramango lituzketela denak.*

Gogoan ditu alemanekin izandako liskarrak. Behin, 1965 inguruko udan, plazan, kanpinero lau gazte parrandan zebiltzan, mozkortuta. Arropa erantzita, bat larrubixirik geratu zen. Serenoak porra erabiliz baretu zuen mutila; eta arropa jantziarazita eraman zuten lagunek kanpinera. Biharamunean, Etxeberri baserriko Ramon hondartza-zainak atera zituen lau mutil haietako hiru uretatik, itsasoak eraman aurretik. Gauero bi kaxa-zerbezarekin joaten omen ziren kanpinera. Beste behin, Berlingo lau polizia alemanek sortu zuten eskandalua. Bihotza-n zaintzaile-lanak egiten zituen Martin Ibarren laguntza behar izan zuen Luisek, Urtain boxeolariaren anaiarena, lau poliziak taxi batean Donostiara bidaltzeko.

Halako batean, argindarra zabaldu zuten herriko kaleetan; eta Orio serenorik gabe geratu zen.

IÑAKI ITURAIN



Ospatzen baino gehiago

Ospatzeko ez ezik, aldarrikapen eguna da martxoaren 8a. Emakumeen nazioarteko egunean, emakume afaria antolatu zuten Orioko Xaltxerek. Adin ezberdinetako hogeita bi emakumek elkarrekin afaldu zuten Balea elkartean. Giro polita izan zuten, lasaia eta alai. Pozgarriena, afaltzen izan ziren guztien ahotik entzuten zena: *datoren urtean berriz!*



“Pentsatzeko modua aldatu behar da informatika eta kodeak ulertzeko, eta hori zaila da ez baduzu ikasten edo umetatik barneratzen. Abstraktutzat hartzen dute herritar askok aplikazioen eta webguneen atzetik dagoena”

Izena Abizena, informatikaria, Urola Kostako Hitzan, otsailaren 17an.

“Gaur egun ukatu egiten da matxismoa dagoenik; esaten digute berdintasunean bizi garela. Hortaz, matxismoa ukatzen den neurrian, ez da ikusten. Badago, baina ez da ikusten”

Ibon Arrizabalaga, Arremanitzeko kidea, Aizu Aldizkarian, martxoaren 8an.

KOLON TXIKI
 etaritegia
 jatetxea
 Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

tel/fax: 943 89 00 69
 Bizkaia kalea, 4. 20.800 ZARAUTZ

 ITURGINTZA - BEROGINTZA - GASA
URBIDE OK
 ITURGINTZA_BEROGINTZA
 GASA_BAINU ERAKUSKETA
 Presupuestok konpromisorik gabe

Imanol Illarramendi
 Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
 arotz lanak
 kortaberri.arotza@hotmail.com
 665 70 33 47

kutixi
 kafetegia
 GOSARI GOKOAK
 Arizaga 9, 20810 Orio
 Tf: 943 13 15 17

libe
 dietetika
 elikadura aholkularitza
 eusko gudariak 35 :: ORIO
 [sarrera Arrantzale kaleatik]
 943 53 64 94 :: 697 23 86 56
 libegarmendia@gmail.com

LEUNDA OKINDEGIA

ORDUTEGI ALDAPAKETA
 astelehenetik-larunbatara
 7.00-13.30 / 17.00-20.30
 943 89 00 67
 igande eta jai-egunetan
 7.00-13.30

Seguros Bilbao
 Orioko ordezkaria
 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com
 Santi Barranco
 Telf.: 618581398
 Arizaga, 2 - 2º ezkerria
 20810 Orio (Gipuzkoa)



INDO

**Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA**

**Ubegun industriagune, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO**



**MENDIZABAL
AROTEGIA**

*Neurriko armairuak
eta egurlanak*

943 831 175 Altxerri bidea
645 708 491 Belf-Alal etxea
mendi@arotzgi.net 20810 Aia-Orio

Joana Murgiondo
Aseguru-agenlea



Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

*Lizaso
dekorazioa*

**Tf:
943 83 07 84**

**Faxa:
943 24 87 15**

Eusko Gudari, 48

Jaunartzeak 2016

ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-
fotorosanaarruti@gmail.com
telf; 943 83 58 45

**J. MAIZA AROZTEGIA
LEIHO ISOLATZAILEAK
(PVC)**

- * INSTALAZIO OSOA
- * OSZILOBATIENTEA
- * ALUMINIOZKO PERTSIANA
- * BARRUKO ETA KANPOKO BUKAERA
- * BEIRA BIKOITZA ETA ISOLATZAILEA 4-16-4

**TEL. 690 99 39 32
943 30 07 88**
www.carpinteriamaiza.com
info@carpinteriamaiza.com

**ALUMINIOAN ERE
AURREKONTUA
KONPROMISORIK GABE**

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TELF - 943. 572083
FAX - 943. 571190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDO 13
20810 ORIO

**Muxutruk
Loredenda**

Eusko Gudari 11- Orio
Tel:943 834117 / 627630022

Zerbitzu berria
ELEKTROESTIMULAZIOA

KARELA
kiroldegia

JAR ZAITEZ **SASOIAN**
ASTEAN 20
MINUTU ARITUZ

Informa zaitetz eta eskatu zure lehenengo saioa
943 89 44 28

BPXp rt

PERTSIANAK

A K O **M A Z**

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Antzerkia Lardizabal eskolan!



Lehen hiruhilekoan, 5 eta 6. mailako ikasleak antzerki tailerra izan dugu asteazkenetan. Otsailaren hamarrean, ikasitako bi antzerkiak – Medikuaren kontsulta eta Gorbata saltzailea – antzeztu genituen eskolan. Seiretan jendea sartzen hasi zen jantoki guztia bete arte. Jangela guztia beterik zegoenean antzerkia egiten hasi ginen. Antzerkiaren gonbidapena Aia osoan zabaldu genuen. Antzezlan, ordu betekoa izan zen.

ORIOKO HERRI IKASTOLA

Atzapartxo taldekoen bisita



Atzapartxo taldea ikastolara etorri ziztaigun animaliak nola zaindu behar diren eta animalianganako beldurra nola gaingitu erakusteko. Gelan, *Neska* txakurrarekin gozatzeko aukera izan genuen. *Neska* bost urtez kateaturik bizi izan zen eta hala ere oso txakur goxoa eta maitagarria da. Denak egon ginen *Neska* laztantzen. Gogorarazi zizuten animaliak ez direla jostailuak, gu bezala sentimenduak dituztela. Mila esker ikastolara etortzeagatik!

ZARAGUETA HERRI ESKOLA

San Juan baleontziaren erreplika



Zaraguetako LH 4, 5 eta 6. mailatakoak Albaola faktorian egiten ari diren San Juan baleontziaren erreplika ikustera joan ginen. XVI. mendeko baleontzi honek bi bidaia egin zituen eta bigarrenean Ternuan ondoratu zen. Duela hiruzpalau urte aurkitu zuten, egoera nahiko onean, eta bale olio z betetako 500 kupel ere aurkitu zituzten. Erreplika 2016ean bukatu nahi zuten, baina lanak atzeratu egin zaizkie eta beste hiru urte beharko dituzte.



Ane Agirre

Sare sozialak

Gaur egun, jende askoren egunerokoan sartzen da sare sozialetan ibiltzea.

Orion, kalera irten eta jende asko ikus daiteke mugikor, tablet edo horrelako tresna ezberdinekin. Beti gazteei esan ohi zaie kontuz ibili behar dutela sare sozialekin. Zergatik soilik gazteei? Gai honi buruz guztiok eduki beharko genuke ezagutza. Pribatutasuna dute hauek arriskua, baina zergatik?

Aplikazio bat jaisterakoan derrigorrezkoa da hainbat arau baieztatzea, hau erabili nahi badugu, eta arau hauek *privatutasun arauak* bezala ezagutzen dira. Gehienok ez ditugu irakurtzen eta ez diegu jaramonik egiten, baina uste baino garrantzitsuagoak dira.

Aplikazio guztiak ez dituzte berdinak edukitzen baina bai antzekoak. Zuk hauek onartzerakoan, eman duzun informazio pribatu guztia erabiltzeko baimena onartu duzu, zure informazio pribatua, argazkiak, zure gustoak... Horrekin edozer egin dezakete. Beraien zerbitzaritik informazio eta argazki guztiak internetera igotzeko aukera dute, ezabatu dituzun argazkiak berreskuratzeko aukera ere badute...

Nola babestu gaitzake? Hau jakinda, salbu al gaude? Behin arauak onartu dituzunean ezin da ezer egin. Arauak ez bazaizkizu egokiak iruditzen utzi aplikazioa erabiltzeari eta kontu handiz ibili zer egiten duzun eta, batez ere, egin beharreko guztia burua erabilita egin.

Aurrekontuen Foru Araua, kontrolerako tresna malgua



2016 urteko aurrekontuak onartu zituzten martxoko udalbatzarrean . KARKARA

Aurrekontuetan lehenetasuna nori edo zeri eman politikarien esku dago, baina erabaki horiek parametro batzuen baitan hartu behar dira. Parametro horiek abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak markatzen ditu.

Hainbat arau kontuan hartzeko

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko Foru Araua 2003an onartu zen.

Foru Arau honek ekonomikoki jarduera bizkor eta eraginkorren aurrekontuak, kontabilitateak eta kontrolak nolakoak izan behar duten zehazten du.

Aurrekontu horiek toki administrazioari dagozkio eta bertako organismo autonomoen eta sozietate publikoen aurrekontuek osatzen dituzte.

Aurrekontua osatzen duen funtsezko beste agiri ekonomiko bat ere bada, Ekonomia-Finantzazko txostena.

Sarrerak aurreikusitako gastuei aurre egiten dieten ala ez aztertzen du.

Egitarau konkretuagoen oreka ere aztertzen dute. Ekitaldian lortu beharreko helburuak eta jarduera hori bideratuko duten ekintza zehatzak definitzen dituzte.

Atal ugariko Foru Araua

Hainbat kontu hartzen dira kontuan arautzeko garaian: aplikazio eremua, aurrekontuen definizioa eta integrazioa, indarraldia, aurrekontuaren abiaburua, edukia, sarrerak, gastuak, egitura, aurrekontu kredituen araubide orokorra eta aldaketan araubidea...

Orioko Udalak hori guztia hartu behar du kontuan aurrekontua egitera koan.

Kontrolerako tresna malgua

Kontrolerako tresna da aurrekontua, baina ezin du zurruna izan. Ekitaldian

zehar derrigor egin beharko diren mol-daketak gehitzeko aukera eman behar du.

Foru Arauak zehaztu egiten duen arren, ez da aurrekontu eredu bakar eta itxi batera mugatzen. Izan ere, erakunde bakoitzak definitzen ditu, autonomia osoz, aurrekontuei dagozkion hainbat kontu.

Orioko Udalean du eragina

Foru Arau hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko osoan aplikatuko zaie toki erakundeei eta beren organismo autonomoei eta haien menpeko sozietate publikoei. Hau da, Foru Arau honek eragina du Orioko Udalean. Hala ere, udalerriz azpiko erakundeei ere aplikatuko zaie.

Gai hori jarri nahi izan dute mahai gainean Udalean, aurrekontuak egiterako garaian kontuan zer eduki behar duten jakiteko eta hausnartzeko.



EAJ

Eraginkorra, gardena eta egonkorra

Lehenik eta behin, aurrekontu batek herritarren beharrak kontutan hartu behar ditu eta hauek ahalik eta modu egokienean erantzuna jaso behar dute. Behar horiek asetzen diren neurrian, herritarren bizi kalitatea hobetzen bait da.

Bestetik, gardentasuna ezin bestekoa dela iruditzen zaigu. Aurrekontuak udaletxean egiten dira, baina diru publikoa erabiltzen denez, gardentasuna derrigorrezkoa da, biztanleek beraien zergak zertan erabiltzen diren jakiteko eskubidea dutelako.

Azkenik, udaletxe baten eta herri baten funtzionamendu iraunkorra bermatu eta aukera berriak irekiko dituzten epe luzeko proiektu estrategikoak bultzatzeko, ezinbestekoa da aurrekontuen egonkortasuna lortzea. Aurrekontu desorekatu batek ezin ditu hurrengo urteetakoak guztiz baldintzatu.

Guzti honen adibide, onartu berria den aurtengo aurrekontua.



Orain

Herritarrak + Beharrak = Aurrekontuak

Lehentasuna herritarra da. Udaletxeak dituen eskumenetan baliabide materialak jarri behar ditu eta herritarraren premiak bete. Lehentasunak finkatzeko herritarren beharren informazio fidagarria eta kontrastatua ezinbestekoa da.

Udaletxeko aurrekontuak pasatako urteetako esperientzian oinarritzen dira normalean eta horregatik izaten da hain garrantzitsua hiritarren parte-hartzea, jakin behar da non egin den kale eta non asmatu, non gelditu den motz eta non gehiegi eman den.

Aurrekontuetan jasotzen dira herritarren beharrak asetzeko diru partidak. Orainsu Euskadiko Udal Legearen zirriborroa adostu da Legebiltzarrean eta aitorten garrantzitsu bat dator bertan: udaletxeari legean onartzen zaion eskumen bakoitzak bere finantziarioa izan behar du.



EH Bildu

Aurrekontuak eta lehentasunak

Udal funtzionamendurako tresnarik garrantzitsuenak dira aurrekontuak, pertsonaleko gastuak, zerbitzu eta mantenuak betetzen dute aurrekontuen gastuaren gehiengoa. Ondoren herriko eragileek daude, aisialdi, ongizatea, kirola, gaztedia, hezkuntza ..., gizartearen osasuna islatzen dute eta udalaren aldetik arreta berezia eman behar zaie.

Inbertsio berriak, egitasmoak -ongizatea, ingurumena...-, irisgarritasun planak, urte baten gauzatu ezin diren egitasmoak dira horregatik legealdi osorako plan edo strategi bat beharrezkoa ikusten dugu. Aurrekontuak eta bertan finkatu beharreko lehentasunak, aurreko hilabeteetan batzorde ezberdinetan, herritarrekin eta herriko eragileekin izandako harremanen ondorio bat beharko luke izan, eta ez orain gertatu den moduan alderdi bakoitzak listoa non jartzen duen araberakoa.



PSE-EE

Sen ona

Aurrekontu Egonkorraren Legeak Orioko Udalari aurrekontuak egiterako garaian sarrerak eta gastuak berdinak izatea derrigortzen du. Udalen esku uzten dute sarreraren banaketa, Udalen erabakia da. Zentzuak esaten digu banaketa hori egiterako garaian, lehentasuna herriak izan behar duela eta herritarren funtzionamendu onak, besteak beste: zaborraren bilketa, garbiketa, argizatzea, udaleko langileen soldatak, ongizatea... Partida horiek estalita daudenean, gainontzekoa garrantzitsuak -baina ez horren beharrezkoak- diren beste esparru batzuetara bideratuko da. Hori guztia sen onak esaten digu PSE-EEko kideei. Baina aurrekontuetan ez da hori betetzen, hainbat arrazoiengatik. Diru partidak horren garrantzitsuak ez ziren gauzetara bideratu direlako gertatu da hori. Aurrekontuak orekatuak izan behar dute, bereziki beharrei dagokionean.



Politika

Zinegotzien gastuak jaitsita 6.930 euro aurreztuko dira

Udalbatzarreko hamar puntuak onartu ziren, gorabeherarik gabe, gehiengo absolutuarekin. Besteak beste, 2016 urteko aurrekontuak onartu ziren. Alkateak proposatzen duen aurrekontua 6.964.460 eurokoa da. Horietatik, inbertsioetara, bi milioi bideratuko ditu. Baina bada denbora luzez eskatu duten aldaketa bat aurrekontuetan. Izan ere, alkateak bi zinegotziri erdi mailako kategoriatik jaitsia proposatu zuen. %11,77 aurreztuko litzake horrela gastuetan, urtean, 6.930 euro. Diru hori Antxiola kalea irisgarri egiteko bideratuko da.

@karkara.eus/orio/1457538739191

Gizartea

Udako lanpostuetarako deialdia zabalik

Udalak hainbat pertsona hartuko ditu uda honetan, lanerako: bi kanpineko komunen garbitzaile, udaltzain laguntzaile bat, txu-txu trenaren gidari bat eta kanpineko zaindari bat. Langileen kontratuak lan-zuzenbidezko erregimenean egongo dira, denboraldi baterako. Lanpostu horietara aurkezteko eskabideak udal bulegoetan eskuratu eta han bertan aurkeztu behar dira. Udal bulegoak astelehenetik ostiralera daude irekita, 8:30etik 14:30era.

Gizartea

Jubilatu eta pentsionisten eguna


Apirilaren 6an Jubilatu eta Pentsionisten eguna ospatuko dute orioko jubilatuek, Zaharren Babeslekuak antolatuta. Bazkari jendetsua egingo dute Errasti sagardotegian, urtero bezala, 12:00etako meza entzun ondoren. Bazkariaren prezioa 22 eurokoa izango da eta martxoaren 29an eta 30ean izango da salmenta, 16:00etatik 18:00etara, Zaharren Babeslekuan.

Gizartea

Familia ugarietzako hobariak

Hobariak eskatu ahal izateko hiru baldintza bete behar dira. Batetik, familia ugaria zarela egiaztatua behar da, familia liburuarekin edo titulu txartelarekin. Bestetik, familia unitateko edozein kideak ezingo du jabetzan izan beste ondasun higiezin bat ohiko bizilekuaz gain. Bukatzeko, ohiko bizilekuaren baloreak ezin du 180.000 euro baino gehiagokoa izan. Baldintza horiek betez gero, hiru hobari banatuko dira.

HILA IRUDITAN



HASI TXIOKA



Mikel Ibarra @kirol_jeihoami · mar. 9
Idoia Etxeberria 100 kiloko harria esku bakarrarekin jasotzen saiatuko da: karkara.eus/aia/1457415683... @IdoiaEtxeberria @karkaraeus

6 2

Ikusi laburpena



Benito Lertxundi @LertxundiBenito · mar. 9
Maiatzaren 7an kontzertu berezia izango dugu ORION @OriokoUdala @karkaraeus @GureBazterrak @berria @LABORALKutxa



Ibai @Ibai · mar. 2
Gustatu zait Eli Manterolaren artikulua @karkaraeus-eko azken alean, sexuen arteko parekidetasunari buruz. karkara.eus/aia/orio/145840...

6 2

Ikusi laburpena



Burubero @BuruberoETB · 21 ordu
Zorte on Alex Mateos oriotarra, ongi etorri

3 3



Gizartea

Feminismoa eta sexismoa ardatzean dituen doktore-tesia

Feminismoaren arra betidanik du Eider Goiburuk. Sexualitate-an emakumeek duten askatasun faltak interesatuta, barne-hutsuneak betetzen hasi zen. Ohartzen hasi zen gizarte matxista honek oso ondo egiten duela guk ez ikusteko zein mailataraino garen diskriminatuak, baldintzatuak. Berdintasuneko masterra egiteak feminismora salto egiteko gogoia piztu zion. Orain gutxi *El sexismo, una lacra para la salud sexual: perspectiva feminista como un factor de protección* doktoretza tesia amaitu du.

@karkara.eus/orio/1457441861154



Gizartea

Herri galdeketa Aian

Martxoa hasieran, bilera irekia egin zen herriko Kultur Etxean. Herriko hainbat lagun bildu ziren bileran, bi helbururekin: plataformaren inguruko informazio gehiago izateko eta dagoeneko sortua zegoen taldeari laguntza eskaintzeko. Taldeak bere hurrengo ekimenaren berri eman zuen eta hurrengo bilerarako hitzordua ere jarri zuen. Apirilaren 14an izango da, ostegunean, arratsaldeko 19:30ean, kultur etxean. Bilera horretara kaskoko eta auzoetako elkarteei joateko deia egin die, plataformaren inguruko informazioa jende gehiagorengana zabaltzeko.

@karkara.eus/aia/1458114796148

Kirola

Hiru marka saiakera

Jokin Eizmendik, Imanol Illarramendi *Kortaberrik* eta Idoia Etxeberriak. Jaialdia martxoaren 20an izango da, arratsaldeko 28:00etan, Aizarnazabalgo pilotalekuan.

Kirola

Aukera errealak gazteentzat

Sevillan irekiko da San Miguel Liga. IV. Euskadi Basque Country Bandera egongo da jokoan. Lehen traineruan harrobiko bi edo hiru arraunlariak tokia izango dutela aurreikusten du Aizperrok.

Ingurumena

Motondo lehengoratzeko

Itsas Enara O.Ek eta Herrio Natur Taldeak elkarlanean Motondoren inguruan idatzitako lana aurkeztu zuten otsailaren 27, 28 eta 29an, Euskadiko Ornitologiako lehen batzarrean.

Kirola

Eizmendi txapelkun

Garazi Eizmendi aiarrak Euskal Herriko Gomazko Pala Txapelketa irabazi du finala 24-25 irabazita. Partidu bat irabazteko asmoarekin hasi zuen txapelketa irabazten bukatu du aiarrak.

Kirola

Diru laguntza deialdia

Orioko Udalak 2016 urteko kirol ekintzak eta jarduerak finantzatzeko diru laguntzen deialdia egin du. Apirilaren 4a bitarte egongo da zabalik eskariak egiteko epea.

Gizartea

Diru laguntzen korapiloak

Urte anitzeko diru laguntzak proposatzen ditu HPSk. Hekimeni hiru urteko planteamendua garrantzitsua iruditzen zaio, baina arrakalak ikusten dizkio proposamenari.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ Intxaurrak: Tamaina oneko Aiako intxaurrak. 3k 14€. 4k 18€. 5k 20€. Pati deitu urtarrilaren 28tik aurrera: 943132131 edo 634424887

Alokairuan

■ Garajea alokagai Aita Lertxundi 21en. Tf: 679 691 654
 ■ Apartamentua alokagai Orio erdigunean. Altzariz jantzita dago apartamentua eta kontratuak urte batekoa edo gehiagokoa izan beharko

du. Tf: 648614769 -Juli-.
 ■ Pisia alokatu nahi dut urte osorako. Bi logelakoa- Tf: 607789644 -Izaskun-.
 ■ Pisia alokatu nahi dut udarako, uztaila edo abuztua. Tf: 636684891 -Juan Carlos-.

Lan eskariak

■ Arratsaldetan lana egiteko prest, bereziki edadetuen zaintzan. Emakumea, euskalduna eta oriotarra. 14 urteko esperientzia alor hone-tan. Mari: 664834388

■ Asteburuetarako lan bila dagoen emakumea. Esperientzia helduen zainketan, baina edozein lan egiteko prest. Paperak ere baditut. Tf: 663117579

Elkarbanatzeko

■ Lanerako bulego handia daukagu, Orion, eta elkarbanatu egin nahiko genuke freelance edo etxetik lan egiten duen jendearekin. Tf: 656309237 -Imanol-.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	11:38 eta ____	05:18 eta 17:50	☾
02	00:16 eta 13:05	06:39 eta 19:08	☾
03	01:36 eta 14:16	07:51 eta 20:15	☾
04	02:39 eta 15:11	08:50 eta 21:10	☾
05	03:31 eta 15:59	09:40 eta 21:59	☾
06	04:18 eta 16:44	10:26 eta 22:45	☾
07	05:03 eta 17:27	11:11 eta 23:30	☾
08	05:48 eta 18:10	11:55 eta ____	☾
09	06:32 eta 18:54	00:15 eta 12:39	☾
10	07:18 eta 19:40	01:00 eta 13:24	☾
11	08:06 eta 20:28	01:48 eta 14:11	☾
12	08:58 eta 21:22	02:39 eta 15:02	☾
13	09:58 eta 22:26	03:35 eta 16:00	☾
14	11:11 eta 23:44	04:42 eta 17:10	☾
15	12:37 eta ____	06:00 eta 18:30	☾
16	01:07 eta 13:55	07:21 eta 19:46	☾
17	02:17 eta 14:54	08:27 eta 20:46	☾
18	03:11 eta 15:39	09:16 eta 21:32	☾
19	03:53 eta 16:16	09:56 eta 22:10	☾
20	04:29 eta 16:48	10:30 eta 22:44	☾
21	05:02 eta 17:19	11:02 eta 23:17	☾
22	05:33 eta 17:48	11:33 eta 23:49	☾
23	06:03 eta 18:18	12:05 eta ____	☾
24	06:34 eta 18:49	00:22 eta 12:37	☾
25	07:05 eta 19:20	00:55 eta 13:10	☾
26	07:39 eta 19:54	01:30 eta 13:44	☾
27	08:16 eta 20:33	02:08 eta 14:23	☾
28	08:59 eta 21:21	02:51 eta 15:09	☾
29	09:55 eta 22:22	03:44 eta 16:06	☾
30	11:07 eta 23:39	04:50 eta 17:16	☾

ZAINZAKO BOTIKAK

APIRILA:

- 1ean, Lasa
- 2 eta 3, G. Artiñano
- 4an, Iriarte
- 5ean, Larrañaga
- 6an, Lasa
- 7an, Etxeberria
- 8an, Lasa
- 9 eta 10, Iturria
- 11n, Larrañaga
- 12an, Izpizua
- 13an, Etxeberria
- 14an, G. Artiñano
- 15ean, Izpizua
- 16 eta 17, Zulaika
- 18an, Iturria
- 19an, Larrañaga
- 20an, G. Artiñano
- 21ean, Zulaika
- 22an, Lasa
- 24an, Iriarte
- 25etik 29ra, Lasa
- 30ean, Larrañaga

Izpizua: Urdaneta kalea, 8.

- 943133183 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orio
- G. Artiñano:** Zigorria kalea, 17. 943134019 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz

AGENDA

Aia

Erromeria

■ Martxoaren 27an, Astiazaran II eta Andonegi trikitilariekin erromeria, 18:30etatik 21:30ra, Aiako Aristerrazu plazan.

Txakoli Eguna

■ Apirilaren 3a, Txakoli Eguna, 11:00etan hasita, Aiako plazan. Koparen prezioa 3 eurokoa izango da eta Eusko Label txahal errearen pintxoak 1,5 eurokoa.

Bilera

■ Apirilaren 14an, Gure Esku Dagoko bilera irekia, 19:30ean, kultur etxean.

Orio

Zaharren babeslekua

■ Apirilaren 6an, Zaharren Babeslekuoen bazkaria, Aginaga sagardotegian.

Proiektzioak

■ Apirilaren 8an, Nola? Fermin Muguru-zaren dokumentala, gaueko 22:30ean.

Kontzertuak

- Apirilaren 15ean, Musikafest, Musika Eskolak antolatuta, arraun etxean.
- Apirilaren 16ean, Danbolin fest, Musika Eskolak antolatuta.
- Apirilaren 29an, Mikel Markez eta Arkaitz Minerren emanaldia, 22:30ean, kultur etxean.

Bingoak

■ Asteazkenero, 16:30ean, kultur etxean.

GEHIEN AXOLA ZAIZUNA BABESTEKO

HEMEN
GAUDE

Bulego berria
SANTI BARRANCO
Endaia Enparantza, 1
20810 Orio
Telf: 943 111 600 - 688 714 869
sbarranco@segurosbilbao.com

 **Seguros
Bilbao**

